

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Aisialdiko lekuetara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak gidari eta guzti kontratatzeke (Gautxori) dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 887130.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdns-trans/GE/es/convocatoria/887130>.

AISIALDIKO LEKUETARA JOATEKO ZERBITZU PUBLIKOKO EDO ENPRESA PRIBATUKO IBILGAILUAK GIDARI ETA GUZTI KONTRATATZEKO (GAUTXORI) DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENA

Alkatearen otsailaren 12ko 28/2026 Ebazpena, aisialdiko lekuetara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailuak gidari eta guzti kontratatzeke (Gautxori) dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa.- Onuradunak

Udalerrian gutxienez urtebete errolatuta daramaten pertsonak izango dira onuradunak, baldin eta Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin dituzten zerga betebeharrak egunean badituzte dirulaguntzaren behin betiko ebazpena eman arte. Ondorio horietarako, zuzenbide publikoko diru sarreretatik eratorritako zor oro hartuko da kontuan, geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zorrak edo zehapenak izan ezik. Eginbehar hori adin txikikoen edo legez ezgaitutako pertsonen tutoretza daukaten pertsoneri ere aplikatzen zaie. Bi betebeharrak eskaerak ebatzi arte bete behar dira.

Bigarrena.- Xedea

Diruz lagundu ahal izango da gaueko 23:00etatik goizeko 07:00etara Arabako Lurralde Historikoko edozein herritara joateko zerbitzu publikoko edo enpresa pribatuko ibilgailu bat gidari eta guzti kontratatzeagatik sortzen den gastua.

Gehienez, lau bidaia/ibilbide lagunduko dira diruz pertsonako eta hileko.

Udalerriko herrietako batek izan beharko du bidaiaren/ibilbidearen jatorria edo helmuga.

Gau berean joan-etorria egiten bada, bi bidaiatzat/ibilbidetzat hartuko da.

Ibilgailua pertsona batek baino gehiagok partekatzen badute, haietako bati baino ez zaio diruz lagunduko kostua.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak udalbatzaren 2022ko abuztuaren 17ko bilkuran onetsi eta urriaren 7ko 115/2022 ALHAOn argitaratu ziren.

Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzak egindako gastuaren % 40koak izango dira, aurrekontu partida agortu arte.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskatzaileek eskaera bana aurkeztu beharko dute hilero, egindako bidaien/ibilbideen zere-
rendarekin.

Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak

Enpresaren faktura edo harekin pareka daitekeen tiketa, egindako ibilbidearen eguna, ordua
eta jatorria eta helmuga jasotzen dituenak.

Diru sarrera egitea nahi den kontuaren erakundea eta IBANa, eta titularra, dirulaguntzaren
onuraduna ez bada.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE